## IDENTIFIKAZIOA:

**IKASLEAK ONARTZEAREN KUDEAKETA**

## HELBURUA:

- Berariazko Lanbide Heziketako Heziketa Zikloren bat, bertaratuta edo bere aldetik, egin nahi duen edozein herritarrek matrikularen aurretik egin beharreko onartze-prozesuan parte hartu ahal izatea.
- Sartzeko baldintza akademikoak betetzen ez dituzten herritarrek onartze-prozesuan parte hartu ahal izateko sarrera-proba egin ahal izatea.

## DESKRIBAPENA/EDUKIAK:

1.- Ikastetxeen Zuzendaritzari laguntzea, batetik EAEko ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan Derrigorrezkoa Ez den Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiteko ikasleak onartzeari buruzko Agindua prestatzen laguntzea, eta, bestetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko Ikasketetako ikasleak (batxilergokoak, erdi-mailako heziketa-zikloetakoak) onartzeko inprimakiaren eredua egiten laguntzea. Goi-mailako heziketa-zikloko ikasleak onartzeko inprimakiaren eredua prestatzea.
2.- Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetara sartzeko probetarako deialdiaren Erabakia egitea eta sarrera-probak kudeatzea.

## EUSKARRIA:

- EHAA.
- Inprimakiak: goi-mailarako onarpena. Sarrera-probak: erdi-mailakoa eta goi-mailakoa.
- Azterketak

## LEGE-ESPARRUA:

- 14/1997 DEKRETUA, otsailaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzea arautzen duena (1997/02/10eko EHAA).
- AGINDUA, 1998ko martxoaren 10ekoa, Erdiko eta Goiko Mailako Berariazko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzea arautzen duena. (1998/04/08ko EHAA).
- AGINDUA, 1998ko maiatzaren 14koa, erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketarako ikasketa espezifikoak egiteko ikasleak ikastetxe publiko eta pribatuetan onartzeko arauak eman dituen Agindua aldatzen duena (1998/06/09ko EHAA).
- AGINDUA, 1998ko martxoaren 10ekoa, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko prozesua arautzen duena (1998/04/08ko EHAA).

## HARTZAILEAK:

EAEn Berariazko Lanbide Heziketako Heziketa Ziklo bat egin nahi duten herritar guztiak.

## EPEAK:

Urtarrila/Uztaila

### BALIABIDEAK:

- Giza baliabideak:
  - Plangintzako teknikaria, LHko arduraduna, LHko eta EIko Sailburuordetzako administraria.
  - Epaimahaiko kideak.
  - Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako Lanbide Heziketako Unitateetako arduradunak.
  - Ikastetxeetako idazkariak.

- Baliabide materialak:
  - Izena emateko inprimakiak
  - Azterketak
  - Probak egiteko lokalak
  - Sarrera-proben euskarri informatikoa.

**SARTZEKO BALDINTZAK:**

- Onarpena:
  - Erdi-mailakoa: DBHko graduatua edo baliokidea.
  - Goi-mailakoa: Batxilergoko titulua edo baliokidea.
- Sarrera:
  - Erdi-mailakoa: urte horretan 18 urte edukitzea edo lanbide-hastapenetarako ikastaro bat gainditu izana.
  - Goi-mailakoa: proba gainditzeko unean 20 urte izatea, edo 18 urte eta titulu teknikoa edukitzea.